

**Lan Harremanen Kontseiluaren txostena, 2024ko apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parte hartzearen gaineko Agindu-proiektuari buruz**



LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGU SAILBURUAREN AGINDU PROIEKTUARI BURUZKOA; AGINDU PROIEKTUAK ARAUAK EMATEN DITU LANGILEEK 2024KO APIRILAREN 21EKO EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAN PARTE HARTU ETA DAGOZKIEN ORDAINSARIAK JASO DITZATEN

## **Aurrekariak**

2024ko martxoaren 7an, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzza Zuzendaritzak idazki bat helarazi zuen Lan Harremanen Kontseilu honetara; idazkian jasota dator Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburuaren Agindu-proiektua, zeinak arauak ematen dituen langileek 2024ko apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parte hartu eta dagozkien ordainsariak jaso ditzaten.

Agindu-proiektuaren testua Lan Harremanen Kontseiluko Txostenen Batzordeko kideei helarazi zitzaion eta 2024ko martxoaren 13ko bileran jorratu zen.

## **Agindu-proiektuaren testuari buruzko iritzia**

Txostenean jorratzen den Agindu-proiektuaren testuak errepikatu egiten du, besterik gabe, Eusko Jaurlaritzan dagoen Sailak helburu berberarekin lehenago emandako beste arau batzuen edukia.

Honen aurreko proiektuen harira ere Lan Harremanen Kontseiluak eman izan ditu kasuan kasuko txostenak, eta bertan, sindikatu eta enpresaburu erakundeek izendatutako Txostenen Batzordeko kideen iritzia jasotzen ziren.

Ikusirik gaur egungo arauaren testuaren eta haren aurretik izan zirenen arteko berdintasuna, LHK-ko Txostenen Batzordeak gai honen inguruan txosten horietan esaten zuena errepikatu nahi du oraingoan ere.

Horrenbestez, 2024ko martxoaren 13an egindako bilera birtualean jarraian ematen dugun txostena onartu da:

## **Txostena**

Txostenen Batzordeko kideek beren adostasuna adierazten dute Agindu-proiektuaren testuarekin, alegia, langileek 2024ko martxoaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parte hartu eta dagozkien ordainsariak jaso ditzaten arauak ematen dituenarekin, honako puntu honetan

**Lan Harremanen Kontseiluaren  
txostena, 2024ko apirilaren 21eko  
Eusko Legebiltzarrerako  
hauteskundeetan parte hartzearen  
gaineko Agindu-proiektuari buruz**

LAN  
HARREMANEN  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
RELACIONES  
LABORALES



izan ezik: Confebask enpresaburuen erakundeak izendatutako kideen iritzian, ordaindutako baimena bakarrik aitortu beharko litzaieke langileei beren lan-jarduna eta hauteskunde-kolegioen irekitze-ordutegia lau ordu edo gehiagotan bat datozenean.

Bilbon, 2024ko martxoaren 13an.